

13/22

irizpena

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2022eko urriaren 18a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 13/22

I.- SARRERA

2022ko irailaren 23an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren idazkia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean; horren bidez, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen Dekretu-Proiektuari buruzko txostena eskatu zuen, bat etorritz Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoarekin.

Dekretu-proiektuaren helburua da Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda publikoa sortzea, bai eta horien funtzionamendua arautzea ere, bat etorritz Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 5. artikuluan jasotakoarekin.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritzia bidal zituzten eta dagokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkioten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Gizarte Garapeneko Batzordea 2022ko urriaren 10ean bildu zen eta, hartutako erabakiak oinarri hartuta, irizpen-proiektu hau egin da, ondoren urriaren 18ko batzordearen osoko bilkuran jorrazteko; aho batez onetsi da.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektua honela dago osatuta: zioen azalpena, hamaika artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen gehigarri bat eta hiru azken xedapen.

Aipatutakoaren arabera, dekretu honen bitartez hasierako eta oinarrizko helburu hau lortu nahi da: Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hirugarren sektore sozialeko erakunde-kopurua zehaztea eta horien osaera ezagutzea, bai eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean ezarritakoa betetzea ere; hala, Euskadiko hirugarren sektore soziala ezagutarazteko eta horri lotutako publikitate, azterketa, plangintza, antolamendua eta sustapena egiteko balio duen tresna sortu nahi da.

Xedapenak

1. artikulua. Xedea eta atxikipena: dekretuaren xedea arautzen du, eta ezartzen du gizarte-zerbitzuen alorreko eskumenak esleituta dituen sailaren mende egongo dela.

2. artikulua. Araubide juridikoa: xedatzen duenez, erroldak ezagutaraziko du zeintzuk diren Euskadiko hirugarren sektore sozialean dauden erakundeak; halaber, ezartzen du tresna publikoa dela eta horretarako sarbideak bete behar dituela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako baldintzak.

3. artikulua aplikazio-eremua arautzen du; **4. artikulua**, berriz, **edukia**.

5. artikulua. Izena ematearen ondorioak: artikulua xedatzen du izena eman behar dela euskal administrazio publikoekin lan egiteko eta horiek sustatzen dituzten sustapen-neurriak baliatu ahal izateko, diruz lagundutako programak barne.

6. artikulua. Izena emateko eskaera: artikulua honetan ezartzen da Euskadiko hirugarren sektoreko erakundeek (dekretu honetako 3. artikuluan aipatutakoek) izena emateko prozedura; erakundearen ordezkariak egin beharko du izen-ematea, eta bide elektronikoan egingo da eskaera.

7. artikulua eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzen du; **8. artikulua izena emateko prozeduraren ebazpenari** buruzkoa da eta **9. artikulua**, berriz, **datuen eguneraketari** buruzkoa.

10. artikulua. Izen-ematea ezeztatzea: artikulua honetan ezarritakoaren arabera, izen-ematea ezeztatu ahalko da alderdiak hala eskatuta edo ofizioz, eta alderdiak bide elektronikoan aurkeztu beharko du horretarako eskaera, egoitza elektronikoan.

11. artikulua. Izapidetze elektronikoa: artikulua honek xedatzen du izapide elektronikoa egingo direla soilik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA: xedapen honek ezartzen du dekretua indarrean sartzen denean erroldan inskribatuta egongo direla, aurretiazko eskaera egiteko beharrik gabe, azken deialdiko erakunde onuradunak; deialdi hori Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan ebatzi eta ezarri zen.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK, berriz, xedatzen du dekretua indarrean sartzean erroldan inskribatuta egongo direla, aurretiazko eskaera egiteko beharrik gabe, gizarte-intereseko erakunde izendatutako erakundeak, bat etorritik Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 74. artikuluan nahiz Gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzko urriaren 7ko 424/2013 Dekretuan ezarritakoarekin.

XEDAPEN IRAGANKORRAK ezartzen duenez, euskal administrazio publikoek egiten dituzten dirulaguntzen deialdietan eskatuko da erroldan izena ematea, dekretu hau indarrean sartu eta sei hilabetera.

LEHENENGO AZKEN XEDAPENAK araubide gehigarria ezartzen du.

BIGARREN AZKEN XEDAPENA araudi-garapenari buruzkoa da.

HIRUGARREN AZKEN XEDAPENAK ezartzen du dekretua indarrean sartuko dela EHAA argitaratu ondoko egunean.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen Dekretu-Proiektua aurkeztu digute, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 5. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ondorioz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak modu positiboan baloratu du aztergai dugun alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak errolda sortzeko araudia egiteko ekimena abiarazi izana, gai horretan dagoen lege-betebeharra betez, bai eta tresna hori abian jartzeko beharrezko ekimena abiarazi izana ere.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

3. artikulua. Aplikazio-eremua.

2.b) apartatuak honela dio: "...Bereziki, enplegu-zentro bereziak eta gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko enpresak sartuko dira eremu honetan, betiere baldin eta erregistro ofizial egokietan behar bezala inskribatuta badaude...". Horren harira, hauxe proposatzen dugu:

- Enplegu-zentro bereziak aipatzen direnean, zehaztea zentro horiek honako hauek direla: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legearen 2. artikuluan jasotakoak nahiz gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak.
- Testuaren idazketa aldatzea, "gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko enpresak" ordez "laneratze-enpresak" esateko.

Arrazoiak: gizartetik baztertzeko arriskuan edo egoeran dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunak bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea helburu duten enpresei "laneratze-enpresak" deritze; hala dago jasota enpresa horiek Estatuan arautzen duen araudian (44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratze enpresak arautzekoa) eta EAEn arautzen duenean (182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, laneratze enpresen kalifikazioa arautzen duena, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituena). Halaber, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legearen 2. artikuluan jasota dago.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen Dekretu-Proiektua izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako gogoetekin.

Bilbon, 2022ko urriaren 18a

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte